

**28A**

**APILILAREN**

**LANEAN  
SEGURTASUNAREN  
ETA OSASUNAREN  
NACIOARTEKO  
EGUNA**

**BIZI BAT BALIO**



**DUEN  
ENPLEGURIK  
EZ DAGO**

@CGT

rojoynegro.info

www.cgt-lkn.org

Lanaren  
Konfederakunde  
Nagusia



## **CGT-LKN apirilaren 28aren aurrean**

### **Lanean Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Eguna**

CGT-tik, gure herrialdean laneko istripuek hartzen ari diren norabide kriminal eta basatia ardura eta amorru handiarekin ikusten dugu. Laneko Ministerioak 2017ko urtarrila-abendua bitarteko aldirako bildu dituen datu "ofizialek" zenbaki beldurgarriak erakusten dituzte; istripu larrien %7,1eko eta istripu oso larrien %2,3ko hazkundearekin.

#### **Lan istripuen hazkundeak gehien zigortutako sektoreak:**

- **Eraikuntza +14,6%**
- **Jarduera Administratiboak eta Zerbitzu Osagarriak +10,9%**
- **Nekazaritza, Abelzaintza, Basogintza eta Arrantza +6,9%**
- **Ostatua +5,8%**
- **Eskulangintza Industriak +5,8%**
- **Garraioa eta Bilketa +5,2%**
- **Merkataritza +4,1%**

Datuak berez oso adierazgarriak dira, langileen bizitzarekiko gizagabetasun eta mespretxu handiena erakusten duten sektoreak, lan baldintza negargarriekin lotutakoak dira, non aldebakartasuna eta enpresarien inpunitatea nagusitzen dira.

Mutuen Legearen modukoek, hutsegiteen kontrolerako EDak, “bonus txarrak” eta 2012ko Lan Erreformatan, enpresariak absentismoaren aitzakiaz kaleratze objektiboak burutzeko eta produktibitatea osasunaren lepotik handitzeko alde bateko bidea indartzen dute; soldatapeko pertsonentzat erabateko porrota den bitartean, lan istripuak ugaritzea eta haien osasunaren gainbehera dakartelako. Bere lanpostura gaixorik doan norbait, haren postuak berez lotuta dakartzan arrisku faktoreak baino handiagoetara esposatuta dago. Gobernuak eta enpresariak hoi onorioen erantzuleak dira.

**Prekarietatearen gorakada**, halaber, lan istripuen kopurua handitzen duen beste faktoreetako bat da. Lantaldean egindako edozein gastu enpresentzat desatsegina da, haiek oinarrian lan eskuaren bitartekari hutsak izatera mugatzen dira. Aldiz, zero kostuarekin lan arriskuen prebentziorako politika egoki bat burutzea ezinezkoa da.

Malgutasunaren gorakada, ihardunaldi partzialen hazkundera, formakuntza eskasa eta lanerako sarbidean aldibaterakotasun jarraia, lan kontratuen babesgabetasun juridikoa, sindikatuek zein gizarteak lanaren antolaketaren gaineko kontrolaren galera, guztiak, kapitalak lan prekarietatearekin langileen “ordezkapen jarraian” oinarritutako sistema batekin bakarrik borrokatu nahi dituen arrisku faktore argiak dira.

Baina Osasuna ez da ongizate fisiko soil. **Osasuna ongizate fisiko, sozial eta psikikoa bezela ulertu behar da.** Hau da MOEren definizioa eta onartuena. Hortan arrisku psikosozial ezagunak sartzen dira. Enpresentzat zein arrisku hoiek behar bezela aztertzen ez dituzten eta hoiek zuzentzeko neurririk hartzen ez dituzten enpresak zigortu beharko lituzkeen Lan Ikuskaritzarentzat gaituztegarriko afera bat da.

Aldi berean, Osasuna, Osasun Ona, gu guztion lan bat izan beharko luke, langile bakoitzarena, eta ez genduke inoren eskutan utzi beharko, ez enpresarietan, ez adituenetan. Osasuna ez dago salgai, egunero eta uneoro defendatzen da.



Guztion artean, lantokietan, lan istripuen gaitz honekin amaitu ahal izateko lan egin behar dugu.

**“Bizi bat balio duen enplegurik ez dago”**

**Lanaren Konfederakunde  
Nagusia**